



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

BIZKAIKO ASEGURU-BITARTEKARIEN ELKARGOAREN ESTATUTUEI BURUZKO TXOSTENA

10/21-SUST-2017 LEAren Proiektua

Sumarioa:

I. AURREKARIAK.....	2
II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK.....	2
1. LEAren eskumena	2
2. Elkargo profesionalen araudia	3
3. Aseguru pribatuen bitartekaritzaren araudia.....	4
III. LEHIAREN ARAUDIARI BURUZKO HAUSNARKETAK	6
1. Elkargoaren xedeak.....	6
2. Elkargoan borondatez sartzea	7
A. Elkargokide-motak	8
B. Elkargoan sartzeko baldintzak.....	9
3. Oniritzia.....	11
4. Elkargoaren erreakzioa lanbideko intrusismoa eta lehia desleialeko kasuetan	12
5. Merkatuaren antolamendua	13
6. Baliabide ekonomikoak.....	14
7. Lanbidean titulaziorik gabe jarduteagatik arau-haustea.....	14
8. Elkargoa eta aseguru-bitartekariak lehiaren arloko araudiaren mende egotea.....	15
IV. ONDORIOAK.....	16

Osoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Natividad Goñi Urriza andrea

Lehiaren Euskal Agintaritzaren (aurrerantzean, LEA) Osoko Bilkurak, 2017ko maiatzaren 30eko bileran, goian adierazitako osaerarekin, erabaki du Bizkaiko Aseguru Bitartekarien Elkargoaren estatutuen aldaketari buruzko txosten hau ematea.



I. AURREKARIAK

1. 2016ko abuztuaren 2an, Lehiaren Euskal Agintaritzan (LEA) sartu zen Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazio eta Justizia Saileko Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritzaren idazki bat non eskatzen baitzen Bizkaiko Aseguru Bitartekarien Elkargoaren estatutuen aldaketari (estatutuak) buruzko txosten bat emateko. Eskariarekin batera, estatutuen aldaketaren kopia bat bidali zuten. Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritzak 2016ko irailaren 27an osatu zuen bidali beharreko informazioa¹.

II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK

1. LEAren eskumena

2. Txosten hau emateko oinarria: Lehiaren Euskal Agintaritzaren Legeak 3.3 eta 10 n) artikuluetan erakunde horri lehia sustatzearen inguruan esleitzen dizkion eskumenak². Funtzio horren xedea da Euskadiko merkatuetan benetako lehia sustatzea, kontsulta-izaerako ebazpenen eta zehapenekoak ez diren ebazpenen bidez; ebazpen horien artean, nabarmentzekoak dira administrazio publikoei zuzendutakoak.

3. Bizkaiko Aseguru Bitartekarien Elkargoaren estatutuen azterketan bi gomendio-mota egingo dira: arau-hauste posibleak aipatzen dituztenak, alde batetik, eta, estatutuetan jasotako aukera indarreko legeriaren guztiz kontrakoa izan ez arren, lehiari kalte gutxiago egiten dioten beste aukera batzuk posible direneko kasuak. Azken kasu horretan, interes publikoarentzat onuragarriagoak diren alternatibak proposatuko dira.

Txosten hau egituratzeko, kategoria materialak hartu ditugu kontuan; hau da, ez diogu jarraitu artikuluen ordenari. Hala ere, argiagoa izan dadin, oinarritzko arauen testuak aipatu ditugu epigrafe bakoitzean, eta adierazi dugu Estatutuetako zer manamendutan duten eragina eta zer iritzi dugun.

¹ Indarrean dauden Aseguru Bitartekari Tituludunen Elkargoaren estatutuak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2000ko irailaren 4ko Aginduaren bidez onartu ziren (2000ko urriaren 30eko EHAA, 208 zk.).

² Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko Euskadiko 1/2012 Legea (2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zk.).



2. Elkargo profesionalen araudia

4. Konstituzioan du oinarria elkargo profesionalen araudiak gure ordenamendu juridikoan. Konstituzioaren 36. artikulua xedatzen duenez, «legeak lanbide-elkargoen araubidea ezarri eta tituludun lanbideen jarduera arautuko du. Elkargoen barne-egiturak eta jardunbideak demokratikoak izan beharko dute».

Elkargodun lanbideak lehia askearen araubidean egin behar dira, eta guztiz aplikatu behar zaie Lehiaren Defentsarako Legea (LDL)³.

Estatuko eta autonomietako araudia Europar Batasuneko zerbitzuen zuzentzarauaren aurrekoa da: Elkargo Profesionalen Legea (EPL) eta tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko Legea (18/1997 Legea). Hala ere, zuzentzarauaren transposizioa egiteko Estatuko eta autonomietako arau ugariak aldatu eragin zituzten elkargo profesionalen jarduteko araubidean, batik bat «Aterki Legea» eta «*Omnibus* Legea» delakoek eta, EAEn, 7/2012 Legeak⁴.

³ 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Defentsakoa, 2007ko uztailaren 4ko BOEn (159. zk.) argitaratua; honako hauek aldatu dute: 39/2010 Legea, abenduaren 22koa (BOE-A-2010-19703); 2/2011 Legea, martxoaren 4koa (BOE-A-2011-4117); eta 3/2013 Legea, ekainaren 4koa (BOE-A-2013-5940). Testu bategina: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-12946>. Egoera horren arrazoia da Europar Batasuneko zerbitzuen zuzentzaraua aplikatu egindako araudiaren aldaketak.

⁴ 2006/123/EE zuzentzaraua, Europako Parlamentuarena eta Batzordearen, 2006ko abenduaren 12koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa, 2006ko abenduaren 27ko 376/36 EBAO L-n argitaratua.

Estatuko 2/1974 Legea, otsailaren 13koa, Elkargo Profesionalei buruzkoa (1974ko otsailaren 15eko BOE, 40. zk.), honako hauek aldatu: 74/1978 Legea, abenduaren 26koa (BOE-A-1979-697); 5/1996 Errege Lege Dekretua, ekainaren 7koa (BOE-A-1996-13000); 7/1997 Legea, apirilaren 14koa (BOE-A-1997-7879), 6/1999 Errege Lege Dekretua, apirilaren 16koa (BOE-A-1999-8577); 6/2000 Errege Lege Dekretua, ekainaren 23koa (BOE-A-2000-11836); 25/2009 Legea, abenduaren 22koa (BOE-A-2009-20725); 5/2012 Legea, uztailaren 6koa (BOE-A-2012-9112). Testu bategina: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1974-289&b=2&tn=1&p=20091223>.

Tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko Euskadiko 18/1997 Legea (1997ko abenduaren 11ko EHAA, 237. zk.).

17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzu-jardueratan aske sartzeari eta aritzeari buruzkoa («Aterki Legea» deitua), 2009ko azaroaren 24ko BOEn (283. zk.) argitaratua; eta 25/2009 Legea, abenduaren 22koa, zerbitzu-jardueratan aske sartzeari eta aritzeari buruzko legera egokitzeko asmoz hainbat lege aldatzeari buruzkoa, («*Omnibus* Legea» deitua), 2009ko abenduaren 23ko BOEn (308. zk.) argitaratua; eta Eusko Legebiltzarraren 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko zuzentzaraua egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa (aldatu egiten du 18/1997 Legea, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa), 2012ko apirilaren 30eko EHAA (84. zk.) argitaratua.



18/1997 Legearen xedea da «tituludun lanbideek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean aurrera daramaten jarduna eta lurralde horretan bertan diharduten elkargo eta kontseilu profesionalak arautzea. Oinarrizko legerian edo arlo horretako legerian jartzen duena ere kontuan hartu beharko da». Zioen azalpenak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoak soilik dituen eskumenak erabiliz egindakoa da araudia, Espainiako Konstituzioko 139. artikuluari kalte egin gabe, betiere. Hain zuzen ere, honako hau xedatzen da artikuluko horretan: «Ezin du inolako agintarik neurririk hartu, baldin eta neurri horiek, zuzenean edo zeharka, oztopatzen badute Espainiako lurralde osoan gizabanakoek askatasunez zirkulatzea eta bertan ezartzea, eta ondasunek askatasunez zirkulatzea».

Horregatik, Bizkaiko Aseguru Bitartekarien Elkargoa (Elkargoa) 18/1997 Legeak arautzen du, 2012an Europako Batasuneko araudiari egokitzeko egin zitzaizkion aldaketan ondoko testuan. Arau horren bederatzigarren xedapen gehigarriak ezarritakoari jarraituz, «Elkargo profesionalen araubidearen oinarriak arautzen dituzten manamenduak bere osotasunean edo zati batean jasotzen dituzten lege honetako atalak legegintza-sistematikari jarraitzeagatik sartu dira testu honetan. Horren ondorioz, atal horiek ere aldatutzat joko dira agindu haiek aipatu den oinarrizko araudian birmoldatzen diren unean.»

3. Aseguru pribatuen bitartekaritzaren araudia

5. Aseguru eta birraseguru pribatuen bitartekaritzari buruzko Legeak (26/2006) aseguru eta birraseguruen bitartekaritzako merkataritza-jarduerak antolatu eta egiteko baldintzak arautzen ditu. Era berean, jarduera horietan hasteko eta aritzeko pertsona fisiko eta juridikoek bete beharreko arauak ezartzen ditu, bai eta aplikatzekoa zaien gainbegiratzeko eta diziplinako administrazio-araubidea⁵.

6. 26/2006 Legeak aseguru-bitartekarien elkargoak arautzen ditu, honela definituta: zuzenbide publikoko korporazioak, nortasun juridikoa dutenak eta beren xedeak lortzeko jarduteko erabateko gaitasuna dutenak.

⁵ 26/2006 Legea, uztailaren 17koa, aseguru eta birraseguru pribatuen bitartekaritzari buruzkoa. 2006ko uztailaren 18ko BOEn (170. zk.) argitaratua. Testu bategina: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2006-12916>. Arau horren xedapen indargabetzaileak, zehazki, honako hauek indargabetu ditu: a) 9/1992 legea, apirilaren 30ekoa, aseguru pribatuen bitartekaritzari buruzkoa; b) Aseguru pribatuak antolatu eta gainbegiratzeko Legearen (azaroaren 8ko 30/1995) zazpigarren xedapen gehigarria; c) Aseguru pribatuen araudia aldatzeko eta Europar Batasuneko araudira egokitzeko Legearen (azaroaren 4ko 34/2003) lehen xedapen gehigarria.



Xedeen artean, 26/2006 Legeak funtsezkotzat jotzen ditu jardueraren ordezkaritza, konstituzioan jasotako elkartzeko eskubidearen kalterik gabe, eta elkargokideen interes korporatiboen defentsa⁶.

Nahi duen pertsona oro izan daiteke elkargo horietako kide, baldin eta aseguru-bitartekarien, birraseguru-artekarien eta horien goi-kargudunen administrazio-erregistro berezian (erregistroa) izena emanda badaude. 26/2006 Legeak elkargoetako kide bezala onartuak izateko eskubide subjektiboa aitortzen die pertsona horiei⁷.

Lanbidean edozein lurralde-eremutan jarduteko, inola ere ezingo da baldintza bat izan elkargo horietako bateko kide bihurtzea aseguru-bitartekariak. Aitzitik, erregistroan izena ematea bada nahitaezko baldintza bat, lanbidean aritu ahal izateko.

26/2006 Legeak baliogabetu egin du lanbidean aritzeko lehen eskatzen zen titulazioaren baldintza, eta nahikoa da gutxieneko ezagutza batzuk egiaztatzea, aseguru-bitartekari mota desberdinen arabera.

26/2006 Legeak, beraz, aldatu egin du lehengo Aseguru Bitartekari Tituludunen Elkargoen izena, eta orain Aseguru Bitartekarien Elkargoen izena hartzen dute. Aldaketa horrek ez du eraginpeko erakundeen nortasun juridikoa aldatu, eta existitzen jarraitu dute, beren eskubide eta betebeharrak guztiekin⁸.

Arauk administrazioaren erantzukizuneko araubide berezi bat ezartzen die bitartekari administrazio publikoaren aurrean, aseguru-bitartekaritzako jardueretan aritzeagatik. Horretarako, arau-hausteak izan litezkeen jarduerak finkatzen ditu, bai eta horiei dagozkien zehapenak ere⁹.

Aseguru-bitartekariak eta elkargoak arau horiek bete behar dituzte.

⁶ Ikus aseguru eta birraseguru pribatuen bitartekaritzari buruzko Legearen 64. artikulua.

⁷ Ikus aseguru eta birraseguru pribatuen bitartekaritzari buruzko Legearen 52. artikulua. Bertan xedatzen da, halaber, Espainian bizi diren edo egoitza bertan duten aseguru-bitartekariak eta birraseguru-artekariak, jardueran hasi aurretik, izena eman behar dutela aseguru-bitartekarien, birraseguru-artekarien eta horien goi-kargudunen administrazio-erregistro berezian.

⁸ Ikus aseguru eta birraseguru pribatuen bitartekaritzari buruzko legearen bederatzigarren xedapen gehigarria.

⁹ Ikus aseguru eta birraseguru pribatuen bitartekaritzari buruzko legearen 54-61. artikulua.



III. LEHIAREN ARAUDIARI BURUZKO HAUSNARKETAK

1. Elkargoaren xedeak

7. 26/2006 Legeak ezartzen duenez, elkargoen funtsezko xedeak dira aseguru pribatuen bitartekaritzaren jardueraren ordezkari-tza eta elkargokideen interes korporatiboen defentsa.

Elkargoak ez dira xede horiek lortzeko erakunde bakarrak. izan ere, aseguru-bitartekari-ek elkarteak sor ditzakete beren interes profesionalak defendatzeko.

8. Estatutuen 1. artikulua-k elkargoaren xedeak ezartzen ditu, eta 18. artikulua-k berezko funtzioak.

1. artikulua.

Bizkaiko Aseguru Bitartekarien Elkargoa zuzenbide publikoko korporazio bat da, nortasun juridikoa eta jarduteko erabateko gaitasuna duena, eta haren xedea da Aseguru Bitartekarien lanbidea ordezkatzeta eta defendatzea, bai eta bere elkargokideen kontsumitzaile eta erabiltzaileen interesak babestea ere, guztia gizartearen interes eta behar orokorrekin bat etorritz. (...)

18. artikulua. Berezko funtzioak:

Honako hauek dira elkargoaren berezko funtzioak:

(....)

b) Lanbidearen jarduna antolatzea, dagokion eremuan eta ezarritako lege-esparruaren barruan. (...)

h) Lanbidearen erabateko ordezkari-tza bere gain hartzea eta defendatzea, jurisdikzio-organo ororen aurrean (adibidez, edozein maila eta gradu-ko epaitegiak eta tribunalak), interes profesional-ek eta elkargokoei eragiten dieten auzi guztietan alderdi izateko legitimazioarekin.

9. Estatutuek ezartzen dutenez, elkargoaren xedeak dira lanbidea ordezkatzeta eta defendatzea. Alabaina, 26/2006 Legeak ezartzen duenez, aseguru pribatuen bitartekaritza-jardueraren ordezkari-tza eta elkargokideen interes korporatiboen defentsa baino ez dizkie esleitzen elkargoei. Ondorioz, elkargoak ez du lanbide guztiaren ordezkari-tza eta defentsa, eta hortaz 26/2006 Legean ezarritakoari egokitu beharko dizkio xedeak. Era berean, estatutuetatik kendu beharko ditu alderdi hauek, legeak esleitutako xedeak gainditzten dituzte eta: lanbidearen jarduna antolatzea (18.b artikulua) eta lanbidearen erabateko ordezkari-tza eta defentsa (18.h artikulua).



2. Elkargoan borondatez sartzea

10. Esan den moduan, 26/2006 Legeak ezartzen du elkargoko kide bihurtzea borondatezkoa dela, eta ez dela lanbidean aritzeko baldintza bat.

Lehiaren Batzorde Nazionalak (CNC), zerbitzuen zuzentzarauaren transposizioaren ondorengo elkargo profesionaleri buruzko txostenean, adierazi du, elkargoko kide izatea nahitaezkoa ez den lanbideetan, elkargo profesionalen funtzioak gainerako elkarte profesionalak dituztenen antzekoak direla. Hortaz, ez du ematen justifikatua dagoenik elkargoek pribilegiozko estatus bati eustea, eta gomendagarria izan liteke, eraginkortasunagatik, elkarte bezala eratzea¹⁰.

«Printzipioz, lanbide elkargodunek, beren izaeragatik, elkargo bat dute. Baina badira elkargokide izatea nahitaezkoa ez den arren, elkargo profesionala duten lanbide tituludunak. Elkargokide izatea nahitaezkoa ez den lanbideak daudenez, zalantzan ipin liteke elkargo profesional horien izaera publikoa; izan ere, kasu horietan, beren xedek ia bat datoz elkarte profesionalak dituztenekin. Edonola ere, horren ondorioz, egungo ordenamendu juridikoan, lanbide elkargodunaren kontzeptua zabalagoa da, eta elkargokide izatea nahitaezkoa izan ez arren elkargo profesionala duten lanbideak ere barne hartzen ditu».

«Azkenik, beharrezkoa da elkargokide izatea nahitaezkoa ez den lanbideei buruzko hausnarketa bat egitea. Teorian, elkargokide izatea nahitaezkoa ez den lanbideetan, elkargo profesionalak elkarte profesionalen antzeko funtzioak dituzte, eta izatez elkarrekin lehiari aritzen dira profesionalen ordezkari izateko, eta kasu horretan ez dirudi justifikatua dagoenik elkargoak duten pribilegiozko estatusari eustea. Alabaina, EPLk eta beste lege batzuek pribilegio ugari aitortzen dizkiete elkargo profesionaleri, elkarrean aurrean, hala nola, korporazio publikoaren izaera, agintaritza eskudunaren izaera, izena, peritu judizialen zerrendetan eta antzekoetan duten papera, oniritziak eta txosten honen gainerako ataletan aipatutako beste gai batzuk. Beharrezkoa da legegileak jakitea, elkargokide izateko beharrik ez dagoen lanbideetako elkargoak EPLk ematen dien egungo estatusari eustea erabakitzen badu, lehiarentzako mugak eragin ditzakeela elkargoak zenbait pribilegio aitortzeak. Horregatik, komenigarria litzateke pribilegio horiek kentzea edo, mantentzea erabakitzen badu, justizia, proportzionaltasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioak oinarri hartzea».

Era berean, CNCK adierazi du, zerbitzu profesionalen lege-aurreproiektuari buruzko txostenean, elkargokide izatea nahitaezkoa ez den lanbideetan elkargo profesionalak beharrik gabe eusten dietela zenbait pribilegiori (korporazio

¹⁰ LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. *Zerbitzuen Zuzentzarauaren transposizioaren ondoren Elkargo Profesionaleri buruzko txostena*, Madril, 2011. 11., 12. eta 22. orr. Hemen eskuratu daiteke:

https://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/Promocion/Informes_y_Estudios_Sectoriales/2012/Informe%20Colegios%20Profesionales%20tras%20Directiva%20de%20Servicios.pdf.



publikoa, perituen zerrendak, oniritziak, etab), eta arrazoizkoagoa dela elkarte profesional bilakatzea eta izen hori hartzea¹¹.

«(...) beharraren eta proportzionaltasunaren irizpideen arabera, desiragarria izango zen borondatezko kidetza duten elkargoak zuzenbide pribatuko erakunde bihurtzeko aukera baloratzea, aurreproiektuaren 28. artikuluan eta zortzigarren xedapen gehigarrian hautatu den aukeraren orde. Horrela, gainera, arau-esparru sinple eta argiago bat ezarriko zen guztiontzat».

Elkargoen kasuan, eraketaren aukera 26/2006 Legean jasota dago eta Estatuko legegileak aurreikusi behar du, hala badagokio, erakunde horiek ordezkartzeko eta xedeen defentsarako elkarte bihurtzea, bai eta prozesu hori gauzatzeko mekanismo juridikoak ere.

A. Elkargokide-motak

11. 26/2006 Legeak ezartzen du zer pertsonak izan daitezkeen elkargoko kide, eta adierazten du aseguru-bitartekari moduan egingo dutela hori¹². Elkargoko kide izan nahi dutenek horretarako ezarritako erregistroan izena eman behar dute alde aurretik.

Bestalde, 18/1997 Legeak ezartzen du elkargoak jardunean dauden eta ez dauden elkargokideak arautu behar dituela estatutuetan¹³.

12. Honako hau ezartzen dute estatuetako 5., 6. eta 7. artikuluek:

5. artikulua.

Honela egin daiteke pertsona bat elkargokide: Aseguru-agente eskusibo edo lotetsi gisa; aseguru-artekari gisa; aseguru-etxe eskusibo edo lotetsi baten ordezkari gisa; aseguru-artekaritzako sozietate gisa; jarduneko bitartekari gisa, aseguru-zorroa mantenduz; jardunean ez dagoen bitartekari gisa; bigarren aldiz elkargoko kide egiten den kide gisa.

6. artikulua.

Era berean, elkargokide egin daitezke jarduneko bitartekari gisa, aseguru-zorroa mantenduz, beren bitartekaritzarekin egindako aseguru-zorroa mantentzera mugatzen direnek, lanbidean jardun eta gero (aseguru-agente eskusibo edo lotetsi gisa; aseguru-artekari gisa; aseguru-etxe eskusibo edo lotetsi bateko ordezkari gisa; aseguru-

¹¹ MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. 110/13 arau-aurreproiektuaren txostena, zerbitzuen eta elkargo profesionalen lege-aurreproiektuari buruzkoa, 21 or https://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/Promocion/Informes_sobre_normativa/2013/IPNAPLSC_P.pdf.

¹² Ikus aseguru eta birraseguru pribatuen bitartekaritzari buruzko Legearen 64. artikulua.

¹³ Lanbide tituludunetan aritzeari eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko legearen (azaroaren 21eko 18/1997) 38. artikulua ezartzen du elkargokideak kide egiten diren elkargoko eskubide osoko kide izango direla, eta jardunean egon daitezkeela edo ez.



artekaritzako sozietate gisa; jarduneko bitartekari gisa, aseguru-zorroa mantenduz; jardunean ez dagoen bitartekari gisa; bigarren aldiz elkargoko kide egiten den kide gisa).

7. artikulua.

Jardunean dauden elkargokideak dira legezko gaitasuna izanik aseguru pribatuen bitartekaritzan diharduten aseguru-bitartekari eskusibo edo lotetsiak, beren kabuz edo aseguru-etxe edo -artekaritza baten edo aseguru-bankuen operatzaile baten izenean eta ordezkatzuz, eta aseguru-artekari gisa; aseguru-etxe eskusibo edo lotetsi bateko ordezkari gisa; aseguru-artekaritzako sozietate gisa; jarduneko bitartekari gisa, aseguru-zorroa mantenduz; jardunean ez dagoen bitartekari gisa; bigarren aldiz elkargoko kide egiten den kide gisa badihardute.

Jardunean ez dauden elkargokideak dira elkargokide izateko beharrezko baldintzak bete eta aseguru-bitartekaritzaren jardura profesionalean ez dihardutenak. Azaldutakoa gorabehera, elkargokide dira dagoeneko bertako kide zirenak, ezarrita dagoen indarreko araubide iragankorraren arabera.

Estatutuek ezartzen dutenez, bitartekariak hainbat kategoriatan sartzen dira elkargora, 18/1997 Legean ezarritakoez gain (jardunean daudenak eta ez daudenak), hala nola: agente eskusiboak edo lotetsiak, aseguru-artekariak, jardunean dauden elkargokideak, aseguru-zorroa mantenduz; jardunean ez dagoen bitartekaria; bigarren aldiz elkargoko kide egiten den kidea etab...

LEAk kategoría horiek kentzeko eskatzen dio elkargoari, eta 18/1997 Legeak ezarritakoari mugatzeko: aseguru-bitartekaria, jardunean dagoena eta ez dagoena.

Bestalde, ez da zehazten estatutuek aipatzen dituzten sozietateak elkarte profesionalak izan behar direla, elkargo profesionalen araudiak ezartzen duen moduan. LEAk zehaztaper hori egiteko eskatzen dio elkargoari.

B. Elkargoan sartzeko baldintzak

13. Estatutuek honako baldintza hauek ezartzen dituzte Elkargoan sartzeko:

8. artikulua.

Elkargokide izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) Merkataritzan jarduteko gaitasun legala izatea.
- b) Bateriaezintasunik ez izatea.
- c) Lanbidean jarduteko ezgaitua ez egotea.
- d) Espainiako edo Europar Batasuneko estatu bateko herritarra izatea, edo, atzerritarra izanik, jaioterrian lanbidean jarduteko elkarrekikotasunaren printzipioa legez egiaztatzea, izatez eta zuzenbidez.
- e) Egiaztatzea aseguru-bitartekaritzan jarduteko baldintza legalak edo akademikoak, edo Europar Batasuneko herrialdeetarako aurreikusitako homologazio-baldintzak, eta betetzea lege-xedapenetan zehaztutakoa.



- f) Sartzeko elkargoko kuota ordaintzea.
- g) Egiaztatzea Bizkaian duela egoitza profesionala.
- 2) Era berean, agente eskusibo edo lotetsiek honako hau egiaztatu beharko dute:
 - a) Agente eskusiboak badira, indarreko agentzia-kontratua dutela Espainian jarduteko baimena duen edozein aseguru-erakunderekin, bertan agente eskusiboaren izaera onartzen zaielarik.
 - b) Agente lotetsiak badira, indarreko aseguru-agentziako kontratu bat dutela, gutxienez, Espainian jarduteko baimena duen edozein aseguru-erakunderekin, bertan agente lotetsia dela esaten delarik, eta izena emanda dutela Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunaren aseguru-bitartekarien, birraseguru-artekarien eta horien goikargudunen administrazio-erregistro berezian edo Aseguruaren Zuzendaritza Nagusian eta, sozietate baten kontura lan egiten badute, sozietate horren inskripzioa aurkeztuko dute ere.
 - 3) Bestalde, artekariak, banka-operatzaileak eta aseguru-konparatzaileak egiaztatuko dute, beren kasa badihardute, izena emanda dutela Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunaren erregistro berezian edo Aseguruaren Zuzendaritza Nagusian eta, sozietate baten kontura lan egiten badute, sozietate horren inskripzioa aurkeztuko dute.

14. Esanenez, 26/2006 Legeak ezartzen du erregistroan izena emanda dagoen edozein pertsona bihurtu daitekeela elkargokide.

Estatutuetan erreferentzia orokorra egiten zaie elkargokidegaiek aseguru-bitartekaritzan jarduteko baldintza legalak edo akademikoak betetzeari, edo Europar Batasuneko herrialdeetarako aurreikusitako homologazio-baldintzak eta lege-xedapenetan zehaztutakoa betetzeari.

Lege-baldintza horien artean dago erregistroko izen-ematea, kasu guztietan egiaztatu beharrekoa, eskatzailea aseguru-agente eskusibo edo lotetsia izan edo aseguru-artekaria izan.

Elkargokide bihurtzeko nahitaezko baldintza izanik, LEAk gomendatzen du espresuki jasotzea estatutuetan erregistroko izen-ematea, bitartekariak egiaztatu beharreko baldintzen artean.

Adierazitakoaren harira, esan behar dugu elkargokidegaiak ez dituela egiaztatu beharko erregistroan dagoeneko justifikatutako datuak:

- a) lanbidean jarduteko nahikoa ezagutza dituela
- b) merkataritzan jarduteko gaitasun legala duela
- c) bateraezintasunik ez duela
- d) ez dagoela lanbidean jarduteko ezgaitua
- e) Espainiako edo Europar Batasuneko estatu bateko herritarra dela, edo, atzerritarra izanik, jaioterrian lanbidean jarduteko elkarrekotasunaren printzipioa legez egiaztatu dituela, izatez eta zuzenbidez.



15. Estatutuetakako 5., 6. eta 7. artikuluetan jasotako elkargokideen kategoriak kentzeko eskariarekin bat eginez, eskatzen dugu orain aztertutako arauaren bigarren eta hirugarren lerrokadak kentzea; izan ere, elkargokide bihurtzeko baldintzak xedatzen dituzte, jardunean dagoen edo ez dagoen elkargokideen kategoriez gain.

Era berean, lehen lerrokadako e) letra kentzeko ere eskatzen dugu.

16. 8.3 artikuluan xedatzen denez, artekariak, banka-operatzaileak eta aseguru-konparatzaileak egiaztatuko dute izena emanda dutela Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunaren erregistro berezian edo Aseguruen Zuzendaritza Nagusian eta, sozietate baten kontura lan egiten badute, sozietate horren inskripzioa aurkeztuko dute.

Horrekin lotuta, adierazi behar da, 26/2006 Legearen 25. artikulua ezartzen duenez, bankako aseguruaren operatzaileak joko dira kreditu-erakundeak, kreditu-erakunde finantzarioak eta merkataritza-sozietate kontrolatuak edo partaidetzakoak. Horiek ezin dira elkargokide izan, pertsona juridikoak direlako. Era berean, aipatu behar da aseguru-konparatzaileak ez direla aseguru-bitartekarien kategorian bat 26/2006 legearen arabera, eta ondorioz artikulua hori kentzeko eskatzen dugu.

3. Oniritzia

17. 18/1997 Legearen 24. artikuluan, lanbide-elkargoen berezko eginkizunak arautzen dira. Zehazki, i) letran, eginkizun hau ezartzen da: «bakoitzaren eskumen-esparruko lan profesionalari oniritzia ematea, baina soilik bezeroek (herri-administrazioak barne) berariaz eskatzen dutenean, edo indarrean dagoen araudiak hala agintzen duenean».

Indarreko araudia 1000/2010 Errege Dekretua (elkargoen nahitaezko oniritziari buruzkoa)¹⁴ da.

EPLren 13. artikulua arabera, oniritziaren helburua da, gutxienez, lana egin duena nor den eta zer gaikuntza duen ziurtatzea, eta lan profesional horren dokumentazioa zuzena eta formaz egokia dela bermatzea, dena delako lan horri aplikatzen zaion araudiaren arabera. Oniritziak oso argia izan behar du bere xedeari, kontrolatu diren kontuei eta elkargoak hartzen duen erantzukizunari dagokienez. Bestalde, ez dira sartuko ordainsariak eta kontratuko gainerako baldintzak, aldeek askatasunez hitzartu ahalko baitituzte. Halaber, ez du jasoko lan profesionalaren elementu fakultatiboen kontrol

¹⁴ 1000/2010 Errege Dekretua, abuztuaren 5ekoa, elkargoaren nahitaezko oniritziari buruzkoa (2010eko abuztuaren 6ko BOE, 190. zk.).



teknikoa. Elkargoaren oniritzia ezinbestekoa den kasuetan, onespeneraren kostuak arrazoizkoa izan behar du, ez gehiegizkoa eta ez diskriminatzailea ere. Elkargoek argitaratu egin behar dute oniritziaren kostua, eta telematikoki izapidetu ahal izango da.

Horrez gain, artikuluko horretako 3. zenbakiak honako hau gaineratzen du: «Elkargoak ikus-onetsitako lan profesional batek kalteak eraginez gero, eta horren egilea bada erantzule, Elkargoa izango da erantzule lan profesionala ikus-onesteko unean Elkargoak nabarmendu izan beharko zituen akatsek eragindako kalteez, lan jakin horretan ikus-onetsi diren elementuekin lotura zuzena dutenez».

18. Estatutuek honako hau ezartzen dute:

18. artikulua.

Honako hauek dira elkargoaren berezko funtzioak:

(....)

ñ) Elkargokideen lan profesionalari oniritzia ematea, lan horien hartzaileek eskatzen dutenean edo legez nahitaezkoa denean. Oniritziak, gutxienez, honako hau bermatuko du: lan profesionalaren dokumentua zuzena dela eta osotasun formala duela, eta aplikatzekoa den araudia betetzen duela. Inola ere ez dira sartuko ordainsariak eta kontratuko gainerako baldintzak; horiek zehaztea alderdien esku utziko da (...).

19. 1000/2010 Errege Dekretuak ez du zerrendatzen, aseguru-bitartekari batek egin ditzakeen lan profesionalen artean, nahitaez onetsi beharrekorik; beraz, artikuluko hori aldatu behar da, adieraz dezan Legearen arabera ez dela nahitaezkoa Elkargoaren oniritzia.

Adierazitakoa dela eta, Estatutuen 18.ñ) artikulua kentzea iradokitzen da.

4. Elkargoaren erreakzioa lanbideko intrusismoa eta lehia desleialeko kasuetan

20. 18/1997 Legearen 11.2 artikulua ez die elkargoari ematen lanbideko intrusismoa jazartzeko funtzioa, ezta lanbidearen interesari eragiten dieten jardun ilegal edo irregularren kontra jardutekoa ere.

21. Estatutuek honako hau ezartzen dute:

18. artikulua. Honako hauek dira elkargoaren berezko funtzioak:

(.....)

p) Lehia desleiala eta intrusismoa ekiditeko beharrezkoak diren neurriak hartzea ordenamendu juridikoan aurreikusitako ekintzen bitartez.



87. artikulua- Arau-haustek oso astunak, astunak edo arinak izan daitezke. (...)

2.- Falta astunak dira (...)

2.e) Lehia desleiala diren egintzak, lehiaren eta lehia desleialaren eskubidearen inguruan indarrean dagoen legediaren arabera. (...)

22. Lehia desleialari dagokionez, Elkargoaren funtzioa eskumeneko organoei intrusismo-jarduerak eta lehia desleiala jakinaraztera mugatu behar da, dagokion araudia aplikatu dadin¹⁵.

Diziplina-neurriak hartu ahalko dira, baina lehia desleialeko jokabideak daudela adierazten dituen ebazpen judizial bat dagoenean soil-soilik¹⁶.

23. Intrusismoari dagokionez, ezin da onartu horrelakorik egon daitekeenik, legeak ez baitu inolako titulaziorik eskatzen jarduera jakin horretan aritzeko.

Hori dela eta, Elkargoak intrusismoaren erreferentzia oro kendu behar du estatutuetatik.

5. Merkatuaren antolamendua

24. Elkargoak merkatua antolatzeari dagokionez, Estatutuek honako hau xedatzen dute:

32. artikulua. Batzordeak

(...)

Era berean, Elkargoak lan-batzordeak sortu ahal izango ditu, batik bat merkatuaren antolamenduari eta lanbideko eta elkargoko deontologiari buruz, bai eta egoki jotzen duen beste edozein gairi buruz ere.

25. Elkargoaren jarduketek bat etorri beharko dute horren xedeekin. 26/2006 Legearen arabera, jardueraren ordezkartza eta elkargokideen interes korporatiboen defentsa dira elkargoen xedeak, eta ez die eskumenik ematen lanbidea eta, are gutxiago, merkatua antolatzeko.

¹⁵ Ikus LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN *Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuaren Kontseiluaren Estatutuei* buruzko txostenaren 17. lerrokada. Bilbo, 2013ko uztailaren 24a, http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es_informes/adjuntos/CO_NSEJO%20GRADUADOS%20SOCIALES.pdf.

¹⁶ CNC, *Elkargo Profesionalei buruzko txostena...* op. cit. 75 or



Aipatutako antolamendu hori LDLren 1. artikulua kontrakoa dela pentsa liteke eta, ondorioz, lehiaren defentsaren arau-haustea litzateke. Horrela, zehapen-espeditzea irekitzea eragin lezake, inguruabarren arabera.

Hori dela eta, beharrezkoa da aztertutako estatutuen 32. artikulutik kentzea merkatua antolatzeko batzordeak eratzeko eskumena.

6. Baliabide ekonomikoak.

26. Estatutuek honako hau ezartzen dute:

36. artikulua. Honako hauek izango dira Elkargoaren baliabideak:

- a) era guztietako kuotak.
- b) Elkargoan sartzeko eskubideak.
- c) legez aitortzen zaizkion eskubideak.
- d) argitalpenen, inprimakien, harpidetzen, zerbitzu-prestazioen edo elkargoarentzat legezkoa den beste edozein jardueraren ondoriozko diru-sarrerak.
- e) ondasunak edo eskubideak ustiatu edo erabiltzetik eratorritako zenbatekoak.
- f) Elkargoaren bankuko kontuen eta gainerako finantza-produktuen interesak eta etekinak. (...).

27. CNCK, zerbitzuen zuzentarauaren transposizioaren osteko Elkargo Profesionalei buruzko txostenean honako hau adierazi du¹⁷:

Ikuspegi ekonomiko batetik, Elkargoan izena emateko edo Elkargoko kide egiteko kuoten zenbatekoak handiak badira, ezin berreskuratuzko kostutzat har daitezke, Elkargoko kide izatea merkatuan lehiatzeko abantaila esanguratsua denean, batez ere. Merkatuan sartzeko oztopo bat da kuoten zenbatekoa handia izatea, eta lehiakide berriek merkatuan sartzeko gogoia galtzea, merkatuan berandu sartzea edo merkatuan ezin sartzea ekar dezake. Horren ondorioz, benetako lehia murriztagoa da, eta gainera, Elkargoko kideek Elkargoan izena emateko edo Elkargoko kide egiteko kuoten kostuak erabiltzaileek eta kontsumitzaileek ordaindu behar izatea eragin dezake.

28. Kontuan izanik Elkargoko kuotek proportzionalak izan behar dutela eta ezin dutela diskriminatu, kuota horiek Elkargoak elkargokideei ematen dizkien zerbitzuen arabera kalkulatu beharko lirateke, eta ez elkargokideen lanaren ordainsarien arabera.

7. Lanbidean titulaziorik gabe jarduteagatiko arau-haustea

29. Estatutuek honako hau ezartzen dute:

¹⁷ CNC, *Elkargo profesionalen buruzko txostena...* op. Cit 57.or.

**87. artikulua. Arau-haustek oso astunak, astunak edo arinak izan daitezke.**

1.- Arau-hauste oso astunak dira (...)

1.e) Lanbidean jardutea, dagokion titulua izan gabe (...).

30. 26/2006 Legeak kendu egin du lanbide honetan aritzeko nahitaezko titulazioa. Zehazkiago, «aseguru-bitartekari tituludun»aren diploma kendu du. Baldintza horren ordez, aurretiko prestakuntza bat egiaztatu behar da (prestakuntza-ikastaro bat edo gaitasun-proba bat).

Hori dela eta, estatutuetako xedapenak ez du zentzurik, eta kendu egin behar da 87.1.e) artikulua, lanbidean dagokion titulua izan gabe jardutea arau-hauste bezala tipifikatzen duena.

31. Gainera, 26/2006 Legeak administrazio publikoari esleitzen dio aseguru-bitartekariak gainbegiratu eta haien erantzukizun administratiboa zehazteko eskumena¹⁸. Zehazki, legearen arabera arau-hauste oso astunak edo astunak dira noizean behin edo behin eta berriz egitea lege-mailako aseguru-bitartekaritzari buruzko arauak debekatutako ekintzak edo operazioak, edo arau horietan ezarritako baldintzak ez betetzea. Prestakuntza-ikastaro bat edo gaitasun-proba bat eginez aurretiko prestakuntza egiaztatzea erregistroan izena emateko baldintza bat da¹⁹.

8. Elkargoa eta aseguru-bitartekariak lehiaren arloko araudiaren mende egotea

32. Lehen esan dugun bezala, EPLren 2.1. artikulua ezartzen duenez, lehia libreko araubidean egingo dira elkargoko lanbideak, eta Lehiaren Aldeko Legeari eta Lehia Desleialaren Legeari lotuta egongo dira zerbitzuen eskaintzari eta horien prezioak ezartzeari dagokienez²⁰.

Hori dela eta, komeni da Estatutuetan berriaz aipatzea aseguru pribatuen bitartekaritzako lanbidearen jarduna profesionalen arteko lehia-araubidean gauzatuko dela. Horrela, gomendatzen da lerrokada hau txertatzea Elkargoaren estatutuetan:

¹⁸ Ikus aseguru eta birraseguru pribatuen bitartekaritzari buruzko legearen 54-61. artikulua.

¹⁹ Ikus aseguru eta birraseguru pribatuen bitartekaritzari buruzko legearen 55.2.c) eta 55.3.a) artikulua.

²⁰ Auzitegi Gorenaren 2009ko ekainaren 2ko Epaia (Administrazioarekiko Auzien Sala, 3. sekzioa), RC 5763/2006. Auzitegi Gorenaren 2007ko ekainaren 19ko Epaia (Administrazioarekiko Auzien Sala), RC 9449/2004 Auzitegi Gorenaren 2008ko azaroaren 4ko Epaia (Administrazioarekiko Auzien Sala), RC 5837/2005.



«Lehia askeko araubidean egingo da aseguru pribatuen bitartekaritzaren jarduera, eta Lehiaren Defentsarako Legearen mende, zerbitzuen eskaintzari, horien prezioak ezartzeari eta zerbitzu-prestazioaren gainerako baldintzei dagokienez».

33. Bestalde, Elkargoak lehiaren defentsari buruzko araudia bete beharko du, bai estatutuak eta elkargoko beste arau batzuk idaztean (hala nola barne-araubideko erregelamenduak, ezarritako prozedurak, eta arau deontologikoak), bai eta jardunean aritzean ere²¹.

Hori dela eta, estatutuen testua gorabehera, Elkargoak ezingo du onartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, eta ezingo du ezarri horrelako betebeharrak edo eskakizunik, horrelakoek lehia babesteko legedia urra bailezakete. Izan ere, obligazio hori ezartzen du EPLren 2.4 artikulua.

IV. ONDORIOAK

Lehena. Aseguru pribatuen bitartekaritzaren lanbidea lehia askearen araubidean egin behar da, eta guztiz aplikatu behar zaio Lehiaren Defentsarako Legea.

Gomendatzen dugu estatutuetan berariaz aipatzea aseguru pribatuen bitartekaritzako lanbidearen jarduna profesionalen arteko lehia-araubidean gauzatuko dela.

Bigarrena. Elkargoak ezingo du onartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, eta ezingo du ezarri horrelako betebeharrak edo eskakizunik, ez eta «merkatua antolatu» ere, horrelakoek lehia babesteko legedia urra bailezakete. Akordio, erabaki edo gomendio guztiek LDL errespetatu behar dute.

Era berean, Elkargoaren jarduketak elkargokideen interes korporatiboen defentsa soilaz harago joan behar du; kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak ere babestu behar ditu, gizartearen interes eta premia orokorrekin bat etorritik.

Hirugarrena. Beharrezkoa da estatutuetako artikulua hauek aldatzea:

- 1 (xedeak)
- 5, 6 y 7 (elkargokide-motak)
- 8.1 (elkargokide bihurtzeko baldintzak)

Artikulu hauek ezabatu behar dira:

²¹ Hain zuzen ere, EPLren 2.4. artikulua ezartzen du Elkargoaren akordio, erabaki eta gomendioek LDLren mugak kontuan hartuko dituztela.



- 8.1.e), 8.2 eta 3 (elkargokide bihurtzeko baldintzak)
- 18 b y h (Elkargoaren funtzioak)
- 18 ñ (nahitaezko oniritzia)
- 32 (merkatuaren antolamenduari buruzko batzordea)
- 87.1.e). (Lanbidean titulaziorik gabe jarduteagatiko arau-haustea).

Bilbon, 2017ko maiatzaren 30ean